


Libertatea, libertarioa ala liberala?



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Badira eskola *libreak*, eta *eskolak*. Maitasun *librea* eta *maitasuna*. Ñabardurarik gabeak, nonbait. Ohartzen bazarete, askatasuna dugu hizkuntzaren bidez markatzen, eta ez ordea *bestea*. Askatasuna delako salbuespena, edo ezaugarri bereizgarria, pentsatuko duzue. Eta bai, hala da, ez-ohikoa zaigu askatasunaren araberako funtzionamendua, diferentea, eta horregatik beraz da markatua. Etiketaren arrazoia horixe dela ongi badakit ere, arriskutsua deritzot izendapen horri, adjektiborik erantsi ezean ereduagarriaren ezaugarria ere ematen diogulako jokamolde ez-libreari, normala denak hartu ohi duen neutraltasun usain horretan ongi kamufaturik, gainera. Norma(la) izaten ahalko balitz bezala tamainako astakeria. Ene.

Adibideekin errazago ikusiko dugulakoan, irudika dezagun libretzat dauzkagun eskola horiek nagusitasuna luketen errealitate bat, non horiei beharko geniekeen eman, noski, Eskola izen handia. Lehen galdera: zer lirateke gainerako eskolak, *inposatuak*? *ez libreak*? Eta bigarrena eta garrantzitsuagoa: ez genituzke baimenduko, ezta? Antzeko galderak egin geniezazkioke maitasun *librearen* ordez maitasuna *baino* praktikatzen ez dutela diotenei. Lehen: zuen harrema-

nak zer dira bada, *behartuak*? Eta bigarrena eta garrantzitsuagoa: nolakoa da *librea* ez den maitasuna? Eta... posible ote da?

Herabeki emanak ere, ezezkoak irudikatu nahi nituzke zuon erantzunak. Askatasunarekin harreman disfuntzionala dugun arren, ez gaudelako hura esplizituki gaitzesteraino edo gure esentziaren kontra aritzeraino bezain gaixo. Ez gaituzte hainbestearaino kaltetu. Argi dugu ez garela askatasunaren arabera bizi, egia da, eta libre sentitzen ote garen galdetu ohi zaigunean, kasik denek dugu ezezkoarekin erantzuten. Hala ere, askatasuna gure jende-kondizioaren oinarria delako-edo, denok sentitzen dugu gure baitan bere taupada, bizitza libreki gidatzeko dugun ahalmen atrofiatu samarraren oihartzun lauso gisa baino ez bada ere. Gauza bat delako gatibu izateko programatu gaituztela etengabe frogatzea. Eta beste bat, oso bestelakoa, formateatuak ez ezik horretarako sortuak ere bagarela onartzea. Gidari baten beharra berezkoa dugula aitortzea bezalakoa litzateke, eta horretatik, pentsatu nahi dut, urrun gaude oraindik.

Eskola *arautu*arena da, libreak omen diren horietarik ezberdintzeko nire inperuan bederen usu entzuten dudan

formula. *Librea vs arautua*, ados, horixe zen orduan kontua, errealitate normalak araututa daudela batzuk, eta libreak ez. Bada, txalogarria da neutraltasunaren tranpan ez erortzeko borondatean *normalari* zehaztasuna emateko ahalegina. Eskertzekoa baita argitara ekarri izana zein den gure inajinarioan askatasunari buruz dugun irudi kolektiboa: dena posible den eremua da, gure jokabideak batere mugarik, araurik, ondoriorik eta ardurarik ez duen paradisua, nirvana moduko bat. Ulergarria, beraz, sortzen duen erakarmena. Eta ulergarria ere bai, sortzen digun beldurra, eta gaitzespena.

Librea dena ere mugatua da, arautua dago, eta orden baten arabera antolatua dago. Bizirik dagoen guzia bezala, bestalde. Arauaren norabideak markatzen du diferentzia: gainetik inposatua zaigun, gure askatasuna zapaltzeko, hain zuzen; edo geuk sortzen dugun, askatasunez, geure nahi eta beharren arabera. Gure ekintzen sortzaile, horien ondorioen jakitun eta erantzule gara. Arduraz. Hori da interesgarria den libertatea, libertarioa dena, eta iraultzailea. Eskolan, afektuen kudeaketan, bizitzan, politikan. Bestea, libertatearen bertsio liberala da, betiko boterearen suzadarena, alegia. Kaka hutsa. ●